

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua aurrera eramateko hainbat baliabide beharko doguz:

- **1.GIZA BALIABIDEAK.** Proiektuaren hasieran langileak gu izango gara langile gehiago ez doguzalako behar. Bakoitzak bere betebeharrak egitea ezinbestekoa izango da enpresa aurrera atera ahal izateko.
- **2.BALIABIDE FISIKOAK.**
 - lokala, 4 ordenagailu (bakoitza 250€) Deuston. Baikoitzak lan egiteko telefono bat eukiko dau.
 - Gmail bat, bazkide eta bezeroekaz harremanetan egoteko, **support@tourify.com.**
 - Baliabide fisikoak ezinbestekoak izango dira proiektua aurrera eramateko.
Lehenik eta behin, lokala behar izango dogu lan egiteko lekua izango dalako. Bigarrenik, ordenagailuak beharrezkoak dira lan egiteko eta aplikazioaren mantenimendua, kontaktuak, barriak... Web-a be ezinbestekoa izango da, gure informazioa, zelan erabili behar dan app-a eta zertan desberdintzen gara beste enpreseataz egongo dalako. App-a oso garrantzitsua izango da, gure bezeroak hori erabili daien eta hortik finantzazioa lortu ahal dogu.
- **3.BALIABIDE INTELEKTUALAK.** Gure ezagutzak beharrezkoak izango dira proiektua aurrera eramateko hainbat orduz lan eta ikertu dogulako eta etekinak maximizatzeko eta aplikaziorik eraginkorrena izan daiten. 4 sortzaile gara, Josebak programatuz app-a egingo dau eta bere helburua bezeroek app-a zailtasun asko barik erabiltzea da, adinduek be erabili daien. Nekanek , kontaktu asko daukaz atzerrian, 3 urte atzerrian bizi izan

dauazalako, Estatu Batuetan, Alemanian 2 hilabate eta Frantzian beste 1 urte. Oskarrek ideia berritzaile asko izaten dauz, espiritu berritzaile bat taldeari emonez eta azkenik, Uxue prezio guztiak eta hornitzaile asko ezagutzen dauz, kalidade handiko eta produktu merkeak (Ordenagailuak, lokala, gailu elektronikoak...).